

TOLOSA / Literatura. Hitzak lantzearen artea. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 24 gaztetxok jaso zituzten atzo XX. Uxola Sariak, haur liburutegian , hizlauan eta poesian

Noelia Lataburu

Hogei urte betetzen dira aurtengoan Tolosako seme Estanislao Urruzola Vitoria Uxola-ri omen egiteko haren izena duen literatur lehiaketa abian jarri zutela. Harrezkero, makina bat gaztetxok idazteko duten abilezia agerian utzi dute, hizlauan zein poesian. Hala, literaturara hurbiltzeko giltza izan da askorentzat Uxola sarietara euren lanak bidaltzea.

Bada, atzo burutu zuten sarien banaketa Errota haur liburutegian; guztira 24 gaztetxoen lanak aukeratu zituzten, hizlauan eta poesian, Agustin Amiano, Bittor Madina, Karlos Linazasoro eta Juan Kruz Igerabide epaimahaiek. Lau mailatan banatu dituzte ikasleak aurtengoan, iaz baino maila bat gehiago; Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak, 5. eta 6. mailak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak eta 4. eta 5. mailakoak, hain zuzen ere. Eskualdeko ikastetxe askok hartu dute parte Uxola sarietan eta Alegiako, Anoetako, Ibarako, Berrobiko, Amezketako eta Tolosako ikastetxe ezberdinetako ikasleek jaso zituzten Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeko eta Kutxako Gizarte Ekintzako arduradunek eskainitako sari hauek.

Sariak banatu bitartean, Juan Kruz Igerabide poetak eta bere alaba Oihane Igerabide harpa-joleak bertaratuen txalo beroak irabazi zituen emanaldi hunkigarria eskaini zuten.